# LEIOA ELIZATEKO UDALA

# IRAGARKIA

**EGUNKARIAK SALTZEKO KIOSKOAK JARTZEKO, HERRI-BIDEKO GUNE BAT BAKARREKO ERABILERAN ADJUDIKATZEKO PROZEDURA ARAUTZEN DUEN BALDINTZA-AGIRIA ONESTEA**

2010/07/09ko 537-O.T. Erabakiaren bidez, onetsi egin zen Udal Zerbitzu Teknikoek idatzitako baldintza-agiria, egunkariak saltzeko kiosko bat jartzeko, herri-bideko gune bat bakarreko erabileran adjudikatzeko.

Honakoak dira emakida honen ezaugarriak:

1.- Erakunde adjudikatzailea.
a)Erakundea: Leioako Udala.
b) Espedientea tramitatu duen bulegoa: Bulego Teknikoa.
c) Espediente-zenbakia: 2010/07/09ko 537-O.T Dekretua.

2.- Kontratuaren xedea:
d) Helburuaren deskribapena: Herri bideko gune bat ematea, bertan egunkariak saltzeko kioskoa jartzeko.
e) b) Gauzatzeko lekua: Doctor Luis Bilbao Líbano kalea; gaur egun, bertan dago kioskoa.
f) c) Gauzatzeko epea: Bost urte, tazituki, urtez urte luza daiteke.

3.- Adjudikazioaren tramitazio, prozedura eta modua.
a) Tramitazioa: Arrunta.
b) Prozedura: Irekia.

4.- Ustiapen-kanona: Eskaintzaren ondoriozkoa.

5.- Behin-behineko bermea: Ez da eskatu.

6.- Agiriak eta informazioa eskuratzeko:
a) Baldintza-agiria eta agiri osagarriak Udalaren Bulego Teknikoan egongo dira (Errekalde plazako 1. zenbakia), aztertu nahi dituenarentzat. Ordutegia 08:30etik 13:30era bitartekoa izango da, eta telefono-zenbakia, honakoa: 94-400.80.05.
b) Agiriak eta informazioa eskuratzeko azken eguna: Aurkezteko azken egun berean.

7.-Kontratistaren berariazko betekizunak: Baldintza-agirian azaldutakoaren arabera.

8.- <u>Eskaintzak aurkeztea</u>:

a) Eskaintzak aurkezteko epea: hogeita hamar (30) egun natural, iragarki hau BAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.
b) Eskaintzekin batera aurkeztu beharreko agiriak: Baldintza-agirian azaldutakoaren arabera.
c) Aurkezteko lekua: Leioako Udalaren Ofizialtza Sailean (Elexalde 1, Leioa, 48490 PK).

9.- <u>Eskaintzak irekitzea</u>: Eskaintzak aurkezteko epea amaitu ondoren, Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak egiten duen lehenengo batzarrean. Aipatutako batzordea Adjudikazio Mahai gisa eratuko da, eta interesdunak ekitaldia ikustera joan ahal izango dira.

Leioan, 2010eko uztailaren 12an

ALKATEA

Sin.: Eneko Arruebarrena Elizondo